

Alemania Inperial Handiaren kontra

• JOSE ANTONIO EGIDO •
[SOZIOLOGOA]

Berlingo harresiaren eraispinak oso esanahi desberdinak ditu, zein gizarte taldek erreparatzen dion: Mendebaldeak manipulaturako herri iritziarentzat, «demokraziaren garai-pena» da. Alemaniako burgesia handiarentzat, berriz, mendekua hartzeko garaia da, 1945ean Hitler garaitua izan eta 1949an alemaniar lurretako lehen estatua sozialista, Alemaniako Errepublika Demokratikoa (DDR), sortu eta gero. Jar dezagun adibide bat, argigarri: Hitlerren kontzentrazio esparruetarako gas gantzeren eraikitzaile Ludwig Topf-en oinordekoek eskaera egin dute beren industria itzul diezaieten, DDRk nazionalizatu zuela eta. Prusiar noble lurjabe-entzat, *Junker* deituta-koentzat, garaia iritsi da beren lursailak, basoak, gazteluak, jauregiak eta bestelako ondasunak berreskuratzeko, nazismoari eman zioten sustengu kriminalaren ondorioz Armada Gorri sobietarrak, herriaren laguntzaz, kendu zien guztia berreskuratzeko. Munchneytarren familia junkerreko kide batek zuzendu du pribatizatze eta DDRko ekonomia sozialista deuseztatzeko erakundea. DDRko herriarentzat, harresiaren eraispina Alemaniako Estatu kapitalistak eta bertako agintari klaseak eragindako amesgaizto baten hasiera izan da. Europako herrirentzat, berriz, Alemaniaren bokazio inperialista suspertuko den beldurra ekarri du. Ondo ulertzekoa da beldur hori, ulertzekoa denez; izan ere, Alemaniak hedatzeko grinari jarraitzen dio ostera: Jugoslavia suntsitu du eta gerra eraman hara; kontrolpean hartu ditu bere aldeko zenbait estatu atzerakoi txiki, esaterako Kroazia, Lituania eta beste; Txekoslova-

kia desegitea bultzatu du; auzitan jarri du Polonia mendebaldeko muga; Kaliningrado errusiar barrendegia eskatu du, eta abar.

Berlingo Defentsa Antifaxistarako Harresia —horixe baitzuen izen ofiziala— eraisteak sortutako biktimetako bat garai bateko DDRko Herria da. DDR ez zen batu Alemaniako Errepublika Federalarekin: basakeriaz inbaditu, umiliatu eta ezereztatu zuten. Munduko hamagarraren estatu industrialak izanik, bertako enpresa moderno eta eraginkorrak



**DDR ez zen batu
Alemaniako
Errepublika
Federalarekin:
basakeriaz
inbaditu, umiliatu
eta ezereztatu
zuten**

—esaterako, Magdeburgoko Rothense siderurgia, Brandenburgoko Eisenhüttestadt, Jenako Carl Zeiss konbinatua eta beste asko— Mendebaldeko monopolioen esku geratu ziren, eta %75 itxi egin zituzten. Nekazaritza kolektiboa, nahiz eta oso emankorra izan, guztiz deuseztatu zuten. Nekazaritzako enpleguen kopurua 900.000tik 180.000ra jaitsi zen. Mendebaldeko saltoki handiek merkatua bereganatu zuten, beren produktuak inposatu eta DDRko elikagaien prezioa igoarazi, sal ez zitezen. DDRko irakaskuntza bikaina ere suntsitu zuten. 40.000 irakasle baino gehiago kalean utzi zituzten. Unibertsitateetako katedrak Mendebaldeko langileek hartu zituzten. Kultura eta aisialdirako sektore guztia komertzializatu zuten —lehen kolektiboa zen; denen esku zegoen, beraz—. Administrazio publikoa ere suntsitu zuten, eta arlo guztietako 1.700.000 funtzionario kalean utzi zituzten eta haien lanpostuak Mendebaldeko agenteek eman. 1993an 4,4 milioi langabe zeuden. Alemaniako kapitalismoak lanetik atera du emakumea eta berriz ere etxean sartu, edo lan gaizki ordaindue-

tan eta prekarioetan onartzera behartu. Unicefek 1999an egindako *Emakumeak aldakuntza garaietan* txostenaren arabera, sozialistak izandako herrialdeetako emakumeak askoz okerrago bizi dira osterako kapitalismoa ezarri eta gero.

Garai bateko DDRko Herri langileak ez du etsiko eta ez die amore emango Harresia erori zenez geroztik Alemaniako kapitalismoak egiten dizkion erasoei. Meatzariek meategiak hartu dituzte, itxi ez ditzaten. Inkestetan diotenez, ez dute sinesten burgesia inperialista handiak asmatutako alemaniar nazioan. *Frankfurter Allgemeine Zeitung*-ek argitaraturako inkesta batean, ekialdeko alemaniarren % 62k diote ez dutela sinesten nazio horretan, eta % 48k oso ondo bizi zirela DDRn. Gero eta sustengu handiago du garai batean agintean izan zen Alderdi Komunistaren ondorengoak, Sozialismo Demokratikoaren Alderdiak (PDS). 1990eko hauteskundeetan, botoen %2,4 lortu zituen Alemania guztian; 1994ko Europakoetan, %4,3; 1998koetan, %5,1; eta 1999ko Europakoetan, %6,1. Haren aurrerabidea ikusgarria da, eta, jakina, garai bateko DDRn du indarra. Turingian, bigarren alderdia da jadanik, %21,4rekin; Brandenburgon, botoen %23 ditu; Berlingo langile auzoetan, %40 baino gehiago. Alemaniako inperialismoak ezin izan du amaitu Herri horren esperantza sozialista, ez baitira alferrik Herri horren parte Karl Marx, Friedrich Engels, August Bebel, Rosa Luxemburg, Karl Liebknecht, esparkisten iraultza, Nazioarteko Brigadak, Bertold Brecht eta Erich Honecker. Nicolás Guillénen poema bat gogorazirik, esan dezagun adiskidearen bihotzari zabalduko diogula harresia baina, aldiz, sastakaia eta sugaren aurka Berlingo beste harresi bat jasoko dugula Herri langileok. Gernikak gogora ekartzen digu Alemania Handiaren egiatako aurpegia.

• Erredakzioan itzulia

hirusta...

MIKEL REPARAZ

Efemerideen lorategia

Hedabideetako dokumentazio zerbitzueta sotoek *morgue* ilunen antza dute. Fitxategi eta karpeta artean, kartoizko kutxa hautsuetan sailkatuturik prest ikusi ditu hilurren bide diren pertsonaia publikoek bizi eta egindakoak. Joan Pablo Aita Santua edo eta Boris Eltsin, esaterako. Itzal artean, hantxe aurkitu nituen gripe soil bati esker



argitara ateratzeko irrikitan dauden biografiak. Prentsa orriak eta irriti minutuak betetzeko zain dauden belabeltzak. Baina itzalpeko biztanle haiek isilpean gorde nituen atzera, eta dokumentazio zerbitzutako arduradunen kuttunek erakarri zuten nire arreta. Sotoaren gainean dagoen Efemerideen Lorategiak, alegia. Hiesaren, Elkartasunaren eta Nafarroako Zaintzuriaren nazioarteko egunak, eta Berlingo horma erori zenekoa. Hamar urte bete dituzten bideozinta alaiak hautatu nituen, Ekialde zein mendebaldeko anai-arreben arteko besarkadak, Brandenburgeko kontzertuak eta suziri koloretsuak. Oroitu dezan jendeak zein momentu historikoa, handiosa izan zen hura. Gerora oharu nintzen, ordea, efemeride ederrenek ere kaduzitate data dute-la, eta denborak aurrera egitearekin lorategiko sasizarrak sotora jaisten dituztela, itzalpeko munstroekin batera. Asteburuan, esaterako, 82 urte bete zituen Boltzbikeen iraultzak —gehiegi—, eta albistegi zerbitzuetan lau katu zahar baino ez genituen ikusi, Plaza Gorrian bueltak, kolorea galdu duten bandera gorriak eta Stalinen erretratu jurasikoei heldurik.

...hemeroteka

■ **garaia**

Milosevic lehendakari

TXILLARDEGI


Horrela dago, bai, Slobodan Milosevic *Gerla kriminal* deklaraturik ere, Belgradoko Jauregian beti agintari. Horra hor Garzontzako beste kaso bat: Hots, berriro ere, lotsagabeki erakutsi du bere jokabidearen gakoa. Stalinen lerrotik orpoz-orpo, ia ia hil da «berebil istripu» batean Draskovic bere

etsai politiko nagusia. «Istripuz», jakina, bere koinatu bat eta hiru zaindari bertan hilotzik gertatu direlarik... Harrigarria. Hori zorte txarra!

Nork ez du gogoan Costa Gravasen *Zeta* filme famatu hura? Nork ez, atzerago joanda, desagerketen olatu odoltsuak?

Lau gerla galdu ditu jadanik Milosevicek Jugoslavia barruko etsaien aurka. Eta sei bat atentatutan bizirik txiripaz zaurigabe gertatu ere bai, 1989az geroztik.

Orain dela 4 hilabete,



besterik ezean, Kosovotik irten behar izan zuen indar okupatzaileekin. Baina oinazeak, populu-deportazioak, hilketak, ez ditu jadanik inork konponduko. Sarrraskiak buruturik, orain «bakea»... eta ahaztu egin beharko. Amerikarrek eta «Nazioarteko Ordena» fa-

matuaren defendatzaileek bonbardaketak burutu zituzten. Gertakari triste haiek gogoratzea alfer lana litzateke: ongi dituzke gogoan irakurleak.

Kosovarrak serbiarren kontra hain zuzen altxatu zirela ahazturik, «egurra yugoslaviar guztientzat». Eta airetikako

eraso nagusiak... Kosovon, hain zuzen ere. Serbiar zapalketaz gain, horretara, NATOren *laguntza* gaineratuz...

Ekonomia xehatua, Kosovokoa batez ere. Nork ordainduko? Jugoslaviar ohi guztiek, jakina.

(...)Oso «ezkorrak» omen gara begien au-

rrean dugun «ordenu» horrekiko. Baina garbiki esan dute: Jugoslaviako mugak sakratuak dira. Errusiakoak sakratuak diren bezalaxe. Kosovarrak? *Connais-pas*. Baikor agertzen direnei beren baikorkeriaren gakoa azaltzea eskertuko genieke.